


Ikasleen Txokoa

Langile Ikastola



Oren guztiek dute gizona kolpatzen,
azkenekoak du horibat egortzen

AITOR HUIZI ETA MAIALEN SAGÜES / II



Hiru desirak / III
MARIA ARROZPIDE BARO



III / Emakumeenganako tratu txarren aurkako eguna
GARAZI MUGERTZA BERASTEGI, CARLA RODRIGUEZ LORENTE, GARAZI LOIARTE VILLAR,
ETA IRATI LARRAÑAGA ARRIZABALAGA

Abiadura Handiko Trenik ez! / IV
HARITZ ARRUARTE

IRITZIA
'Zoaz infernura, laztana' / IV
IDOIA ANSORENA MUGIKA, EKHIÑE ARRUTI SALABERRI,
MADDALEN OTAEGI UGARTEMENDIA ETA OLATZ LIZARAZU MARIN

Komikia / IV



IV / Egileen argazkia

Ikasleen Txokoa kaleratzen da Hernaniko ikastola eta ikastetxeek Hernaniko Udalarekin eta Hernaniko Kronikarekin egindako elkarlanari esker. Datozen hilabeteetan jarraipena izango du.

LANGILE IKASTOLA

Duela bost bat hilabete, Xabier Letek Euskal Literatura bat aipatu zuen, bere pentsamendu filosofikoa labur zeza- Saria jaso zuen bere *Egunsentiaren esku izoztuak* liburua- keena: "Vulnerant omnes, ultima necat.". Behe Erdi Aroan, rengatik. Besteak beste, liburu honetan epigrama latindar epigrama hau Axular euskal idazleak euskarara itzuli zuen.

Oren guztiek dute gizona kolpatzen, azkenekoak du horibat egortzen

AITOR HUIZI
ETA MAIALEN SAGÜES
Langile ikastola

AXULAR, Sara herriko (Lapurdi) erretore zela, bertako kanpandorreen berak itzuli zuen epigrama hura irarrarazi zuen, eta gaur egun bertan dirau. Bere obretan eta kanpandorreko idatzian zehazki bere pentsamendu existentzialista islatu zuen Axularrek, nolabaiteko pesimismo eta itxaropenik eza behin eta berriz erakutsiz. Bertan irarri zuenarekin, bizitzan jasotzen diren kolpeak aipatu nahi izan zituen, kolpe guzti horien ostean azkenarekin heriotza datorrela adieraziz. Izan ere, bizitza etengabeko borroka bat bezala ulertzen zuen Axularrek, ezbeharrak era jarraituan jaso eta gero heriotza sari bat edo atsedeen bat bezala hartzen zuelako, eta bere kasuan Jaungoikoarekin elkartzea. Bizitza, beraz, heriotzara zeraman bide soil bat zen harentzat, latza eta eragozpen bezala.

Erdi Aroko pentsamendua
Pentsamendu filosofiko hau Erdi Aroko Europan garatu zen, eliza kristauak sustaturik. Hone- la, bizitza gogorra izan behar zela onartu zen, zerura/paradisura sartzeko proba baldin bazen gogorra izan behar zelako. Baliteke pentsamolde hau garai hartako bizitza latza justifikatzeko sortua izatea, kontsolamendu gisa, edo jendek beldurtu eta elizaren interesak betetzeko, agian. Ondoren zetorrena-



Axular.

ren beldur bizitza bera bizitzea ahaztu zitzaizela zen kontua. Ez zen harrizkoa, beraz, bizitza gogorra zela pentsatzea, beste norabait begira bizitzen bazuten. Horrela hasi zen lehen aipatu dugun "Vulnerant omnes, ultima necat" epigrama latindarra erabiltzen.

XXgarren mendean Existenzialismoa

Eta pentsamolde honi jarraituz, existentzialismoa iritsi zitzaigun XX. mendean, Erdi Aroko pesimismoaren oinorde-

ko bat bezala. Belaunaldi filosofiko berri honetan, bizitzeko arazoia gizakiak berak sortzen zuela pentsatzen zen, guk guregatik eta guretzako sortzen genuen ilusio bat lez. Horrela, bizitzaren arazoia bilatu ordeztentziaren arazoia bilatzeari ekin zitzaion, eta filosofia hau existentziak arrazoirik ez zuela ohar-tzean loratu eta hedatu zen. Honek pesimismo nabarmen bat sortu zuen, gizakiok zailtasunak edukitzea baititugu edo zuzenean ezin izan baitugu onartu

ez gaudela ezertarako edo zergatik, ezta inorengatik ere.

Xabier Letek eta beste euskal artista ugari sarri aipatu izan dituzte horrelakoak, betiere unibertsoan gizakiak duen bakardadea eta funtsik eza azalduz. Baina, bitxia badirudi ere, hamarkada batzuk lehenago Letek berak idatzi zuen Izarren Hautsa letran azaltzen zuenez, bizia hain zuzen ere izarren hautsetik sortu zen. Beraz, bizidun guztiak guraso berak ditugula ondorioztatu de-

zakegu, eta beraz gizakiok ez gaudela dirudien bezain bakarrik gure planetan bada ere.

Bestalde eta ildo honi jarraituz, jakin badakigu izarren hauts hori kometek daramatzaten gas eta substantzia multzoak direla, eta zientziari esker gu hartatik gatzela ondorioztatu dute teoria batzuk. Hori dela-eta, komunitate zientifikoak beste planetaren batean bizia egoteko aukera asko daudela ondorioztatu du, eta beraz ez garela uste dugun bezain aurreratu eta bereziak.

«Carpe diem»

Datu hauei guztiei esker, Axularrek eta berandua- go Xabier Letek erakutsi duten existentzialismoak eta pesimismoak oinarri sendorik ez duela ondorioztatu dugu, eta honi eutsiz eta epigrama latindarrekin gaudenez gero, "Carpe diem quam minimum credula postero" erromatar epigrama aipatuko dugu, Horacio poetak idatzia. Bere esanahi metaforikoaz aprobetxatu ezazu eguna, ez izan biharamunarekiko konfiantzarik dio. Izan ere, zergatik hainbeste buruhauste gizakion bakardadeari buruz, bakarrik gaudela ez badakigu? Eta zergatik kezkatu heriotzara eramango gaituen kolpearengatik, hau saihestezina bada? Hobe izango genuke gainerako kolpeak saihestu, eta azken horri itxaroten gauden bitartean beste gauza batzuetan pentsatu, bizitza laburra bada ere daukagun bakarra delako, ez da hala? CARPE DIEM! ■

Hiru desirak

MARIA ARROZPIDE BARO

Bazen behin, Gorka izeneko 11 urteko mutiko bat. Lekunberriko Saizar baserrian bizi zen, bere ama, aita eta amonarekin batera. Gazteak denbora asko pasatzen zuen etxetik kanpo zeren eta mendian paseatzera sarritan joaten zen, Xagi bere txakurrarekin batera. Azkeneko hau mutikoak asko maite zuen, horrenbeste, bere lagun onena zela.

Goiz batean, egun guztietan egin ohi zuten bezala, animalia eta Gorka, Petzar mendira joan ziren. Oso altua zen, Lekunberriko altuena, baina beraiek ibilbide laburra egiten zuten.

Denbora dezente zeramatzaten ibiltzen, goizeko 9:30etan atera ziren, eta jada 10:50ak ziren. Hotz egiten zuen, baita elurra ere, beraz, gordeleku bat bilatzera abiatu ziren, han goxo egongo ziren eta. Gehiago ezin zutenean, urrutira, koba bat ikusi zuten, eta bertara joan ziren. Gordelekuan, bata bestearen ondoan jarri ziren, bero atsedeen hartzeko asmotan. Bat-batean, ahots leun bat entzun zuten.

Udane sorgina zen. Itxura zakarra eta mesfidatia zuen,



Xagi, Gorkaren txakurra.

izan ere, trapu zaharrez eginitako soineko bat zuen, oinetan bi alpargata zikin zeuzkan, eta sorgin guztiak eduki ohi duten bezala, berak ere sudurrean izugarritzko garatxo bat zeukan. Baina, ahots leun eta atsegin handiz hitz egiten zenez, bertan gelditzea erabaki zuten, eta emakumearekin batera, denbora askoz egon ziren berbetan. Andereak esan zion Gorkari, nahi zituen hiru desira eskainiko

zizkiola, baina egun bat barru, hau da, 24 ordu pasa eta gero beteko zirela. Gazteak esan zion sorginari oso zaila zela momentuan erabakitzea bere hiru amets edo desira horiek, ea ahal zuten biharamunean, leku eta ordu berean gelditu, eta orduantxe esango zizkiola. Udane atsegin itxurak eginez, bere tratua onartzen zuela esan zuen, eta gero kobaren ilunpean desagertu zen.

Mutikoak ez zekien, baina anderea sorgin guztiak bezain maltzurra zen: aurkitzen zuen jendeari hiru desira eskaintzen zizkion, baina kontrako guztia egiten zien. Adibidez, aberatsa izan nahi bazuen, behartsu bihurtzen zuen.

Hurrengo goizean, Xagi eta Gorka, azken hau oso urduri, Petzar mendira abiatu ziren, han baitzegoen koba. Udane bertan zegoen, irribarre handi batekin itxaroten. Sorgina hitz egiten hasi zen:

- Kaixo lagun! Ondo pentsatu al dituzu eskainiko dizkizudan hiru desirak? Gogoratu hau, bizitza osoan behin bakarrik gertatuko zaitzula, beraz kontuz!

- Bai horixe! Argi eta garbi dauzkat, hasi al naiteke?

- Bai, bai, nahi duzuean, aurrera!

- Bueno, baa... Lehenengo aberats izan nahiko nuke.

- Ondo da -esan zuen sorginak, eta hitz magikoak esaten hasi zen- desira eta amets, nik bihurtuko dut mutiko hau aberats!

- Jada aberats al naiz?

- Je,je,je, esan nizun egun bat barru beteko zirela... Jarrai ezazu!

- Bigarren desira da... bigarren desira da... Familian isti-

lurik ez egotea, bai horixe!

- Zuk nahi baduzu - Udane berritro hitz horiek esan zituen.

- Azken ametsa da, nire gertuko pertsonak inoiz ez gaixotzea!

- Ondo da -andereak hirugarren aldiz desira betetzeko behar ziren hitzak esan zituen.

Mutila poz-pozik bueltatu zen etxera, 24 ordu pasatzeko gogo handia zuen, bizitza berri bat bezela edukiko zuelako. Baina, ondo zekien itxaron beharra zuela.

Hurrengo egunean mutila esnatu zenean ohartu zen trapuz eginitako ohe batean etzanda zegoela, eta arraro egin zitzaien, berak aberats izatea eskatu zuelako. Familiarengana joan zen, denak ezutika eta kalenturarekin bezela zeuden, hau da, denak gaixo, eta bera ere gaizki sentitzen hasi zen. Honek ere, Gorka harrituta utzi zuen. Orduan, zer gertatzen zitzaieen galdetu ziren, eta denak haserre bazeuden bezela erantzun zioten. Gaztea konturatu zen sorginak ziria sartu ziola, eskatzen zutenaren kontrako guztia gertatzen zitzaiola.

Handik aurrera, denak, sorgina izan ezik, hau oso pozik bizi izan zela, oso gaizki bizi izan ziren. ||

Emakumeenganako tratu txarren aurkako eguna

BATZUETAN, azaroaren 25a zergatik ospatzen dugun galdetzen diogu geure buruari eta erantzuna emakumeenganako tratu txarren aurkako nazioarteko eguna ospetean datza. Ospakizun hau Patricia, Minerva eta Maria Teresa Mirabal ahizpen hilketatik gogoratzen sortu zen. Hiru hauek ekintzaile politikoak ziren eta Rafael Trufillok, garai hartako diktadoreak, polizia sekretuari ahizpa hauek hiltzeko agindua eman zion 1969an, Dominika Errepublikan. Azkenik, Mirabal ahizpen gorpuak amildegi batean agertu ziren, guztiz txikituta.

Gertaera honen oroimenez, lehen topaketa feminis-

ta antolatu zen Bogotan 1981ean. Kontzentrazio honetan emakumeenganako bortxaketak, torturak... salatu zituzten.

Egun hau ospatzen dela eta, guk ideia batzuk kontuan hartzea nahiko genuke:

1- Hezkuntzan, neska mutilei txikitatik irakatsi behar zaiela bi sexuak errespetatzen; horretarako besteak beste, ikastoletan Hezikidetzak klase ordu bereziak jarri.

2- Etxean, emakume nahiz gizonen erantzukizun berdina hartu behar dutela egunerokotasunean. Orain arte etxeko zereginak emakumearen esku izan dira eta horren ondorioz bazterkeria

jasan du.

3- Emakume etorkinen eskubideak bermatzea eta ezagutzea; haien bizimodua oso gogorra da, guk egiten nahi ez ditugun lanak egiten baitituzte eta irabazten duten dirua, beren familiei bidali behar baitute. Aipatu bazterketa honez gain, kontratu legalik ez izatea ere pairatzen dute. Beraz, berdintasun plana ezarri behar da lantokietan; oraindik ikus daiteke emakumeek balore gutxi dutela eta gizonen, aldiz, lehentasuna dutela lan bat aurkitzeko momentuan. Enpresa batzuetan nahiz eta gizonen emakumeen lan berdina eduki, emakumeen soldata txikiagoa da.



Lehen topaketa feminista Bogotan antolatu zen.

Honetatik ondorioztatzen duguna da oraindik lan handia dugula egiteko, bai emakumeek bai gizonen. Garrantzi handia du jaiotzen garenez geroz heziketa egokia jasotzea, bai neskek bai mutilek, eta handitu ahala elkarrekin lantzea, alferrik arituko baikara nesken arte-

an soilik zabaltzen badugu berdintasuna.

Garazi Mugertza Berastegi,
Carla Rodriguez Lorente,
Garazi Loiarte Villar
Irati Larrañaga Arrizabalaga
Langile ikastola

Abiadura Handiko Trenik ez!

ASPALDITIK dabilta Euskal Herrian zehar egin-go den AHT-ari (Abiadura Handiko Trena) buruzko aldeko eta aurkako milaka argudio.

Hasteko esan nahi nuke, AHT-a jartzea nire ustez ez dela batere egokia izan. Esaterako, nahikoa tren badago jada eta ez dago gehiago jartzeko horren beharrik, honek ekarriko dituen ondorioak ikusita. Agintariek diote, tren honekin askoz ere bizkorrago bidaiatu ahal izango dugula eta horretan guztiok gaude ados, logikoa baita. Baina, zein prezio ordaindu behar-ko dugu horretarako? Eta ez naiz ari prezio ekonomikoaz bakarrik.

Ibilgailu honek, abiadura oso handiak hartuko lituzke eta ondorioz, berarentzako egokiak izango lirartekeen trenbide berriak eraiki beharko lirarteke. Ondorioz, ingurugiroan, kalte handiak sortuko lirarteke. Esaterako, baso asko txikitu beharko lirarteke, mendiak zulatu eta estazio berriak jartzeko lekuak egin (hiriburuetan eta hiri handietan egongo direla).

Baita ere, zenbat baserritar geratuko dira etxe eta bizitzeko modurik gabe beraien etxeak botako dizkietelako? Eta ez baserritar-rrak bakarrik, terrenoak dituen jende guzti hori edota animaliak heztetik

bizi den jendeari lurra kentzen badizkiote?

Mendizaleentzat ere zailtasun handiak ekarriko ditu horren eraikuntza handiak. Batetik, mendira joatea gustuko dutenek beste denbora-pasa bat bilatu beharko dute beren denbora libre pasatzeko, mendiak kamioi eta eskabadoraz beteak egongo baitira. Ez hori bakarrik, ehiztari, motorista, bizilagun eta horrelakoei ez zaie batere gustatuko mendiko pistetan barrena doazenean bat-batean kamioi edo eskabadora bat aurkitzea edo *No pasar* jartzea kartel baten eta bertatik joan beharrak.

Ordea, dena ez dira AHT-aren kontrako argudioak badaude aldekoak ere. Lehenago esan dudana bezala, askoz ere azkarrago bidaiatu al izango genuke eta trena denez autoan joago bagina kutsatuko genukeena baina gutxiago kutsatuko genuke. Eta hori ingurugiroak eskertuko luke.

Beraz ikusitakoak ikusita, nik pentsatzen dut: ezin al daiteke horren abiadura handikoak izango ez diren tren berriak sortu eta trenbideak hauei egokitzea, horrenbeste txikizio egin beharren?

Haritz Arruarte
Langile ikastola

IRITZIA

Zoaz infernura, laztana


ANJEL Lertxundi, XX. mendearen bigarren erdiko idazle oriotarra dugu. Literatur munduan hainbat arlo jorratu ditu, guztietan bere literatur kutsua ezaugarri nagusi delarik. Kazetari testuak eta haur, gazte eta heldu literatura landu ditu, bakoitzean bere xarmentasuna erakutsiz. Hainbat liburu argitaratu ditu, horietako bat *Zoaz infernura laz- tana*, 2008an kaleratutakoa.

Eleberri honetan, azken garai hauetako gatazka handi bat narra- tzen du, bere osotasunean. Bikote harremanak aztertzen ditu hain zuzen ere Lertxundik. Gehienetan, botere harreman bihurtzen dira tratatu horiek, botereaz baliatzen bere botereaz baliatzen da umiliatzeko eta tratatu txarren bidez otzatzeko. Hala kontaktzen du, nolakoa den maitasuna, gero eta sator-zulo handi- goa. Bertan, protagonistak itsu- itsuan, sentimenduei jarraituz, aurrera eramaten dituen hainbat ekintza kontaktzen dira, zeinak irakurleak ikus ditzakeenez, okerrak diren. Guztiak indarkeriaz hartzen duen senarrarengandik urruntzeko asmoz gauzatzen ditu, baita bigar- ren gizon batengana gerturatzeko ere. Rosa, protagonista, oso autoes- tima baxuko pertsona da, ez du bere burua onartzen bere jaiotegun zen- bakitik hasita. Gainera, kanpoko pertsonen pentsatzen dutenari garrantzi handia ematen dio.

Oso nobela aberatsa da, hiru narratzaile desberdin erabiltzen baititu. Hiru hauen bidez, pertsonaia bakoitzaren ikuspuntua lortzen du hala nola, istorioa pieza desberdinak harilkatuz. Liburua irakurtzen zoazen heinean, intriga nabarmenki doa gorantz eta irakurtzeko gogoia sartzen da, bukaerara iritsi eta amaiera iraku- rri arte. Horretan oinarritu da Lertxundi, jendea harrapatzeko. Nobelaren hasiera ustez pisutsua gerta daitekeen arren, istorioan bere- hala sartzen zara oso arrunta baita gai hau, egunerokotasunean, telebistan egunero titular baita.

Gure aldetik, irakurtzera anima- tzen zaituztegu gai interesgarria izate- az gain, heldu beharrekoa ere badela- ko; izan ere, gaur egun egoera kritikoa izanik, etorkizuna ere ilun xamar ikusten dugulako.

Idoia Ansorena Mugika,
Ekhiñe Arruti Salaberri,
Maddalen Otaegi Ugartemendia,
Olatz Lizarazu Marin
Langile ikastola



Alearen egileak:

